



JUAN CARLOS RUIZ / ARCAZKI PRESS

«Euskarak toki murriztua du zenbait eremutan, baina ez da ezintasunagatik»

JABIER AGIRRE ETA MIRIAM URKIA UZEIko terminologoa eta lexikografoa

Jakintzako arlo askotako euskarazko hiztegiak egin ditu UZEIk azkeneko 30 urteotan, eta lexikoan ere XX.mendeko esamoldeen corpusa osatzen ari da Hiztegi Batuan biltzeko.

EKAIN ROJO
Donostia

Euskara gizarte modernora eramatea eta zernahi eremutan hizkuntza edozein beharrian asetzeko gai izatea. Helburu horrekin sortu zen Unibertsitate Zerbitzuetarako Euskal Ikastetxea (UZEI) 1977ko azaroan. 30 urteren buruan, erronka bera du. Euskarazko unibertsitate ikasketen loraldiak arlo askotan terminologia eta hiztegien premia sorrazen zuen. Gaur egun, eremu gehiagotara bideratzen da UZEIren ekimena, itzulpen eta lexiko azterketara batik bat. Bidean, hasierako boluntarioak profesionalak dira orain, eta nazioarteko homologazioa lortzen da.

Nolakoa izan zen UZEIren sorrera? Zer helbururekin jaio zen?

JABIER AGIRRE: Terminologia lantzen hasi zen. Ezer gutxi zegoenez, unibertsitatean eta sortzen ari ziren euskarazko hezkuntza guneetan premia handia zegoen. Orduan, hiztegiak eginen hasi ginen, gure estiloan. Lehenengo fisikakoa izan zen, 1979. urtean. Gero, beste

alor batzuetakoak, hala nola kimika, matematika, psikologia, enpresa eta zuzenbidekoak. Banakako hiztegiak datu base batean biltzea otu zitzaigun ondoren. Horrela sortu zen Euskalterm, gaur egun datu base publikoa dena, hiztegi guztiak errazago eskura izateko.

MIRIAM URKIA: UZEI Jakinetik sortu zen. Martxel Aizpurua biologoa izan zen bultzatzailea. Ikasketak amaitu eta lan egiteko euskarazko lexikorik ez zuenez, Jakinera jo zuen. Natur zientzietako hiztegia kaleratu zuten, eta batez ere Joseba Intxaustegi eta Paulo Agirre-baltzategi aritu ziren. Unibertsitate euskaraz lehen urratsak eginen ari zen, eta irakasteko materiala emateko sortu zen UZEI.

Zer balantze egiten duzue UZEI sortuzela 30 urte bete berri direnean?

URKIA: Boluntario, fede eta ilusio handiz sortutako ekimena, jomuga ezjakina zuena, profesionalizatzea heldu gairela. Hasierakoek terminologia elea ere ziur asko ez zekiten zer zenere, hiztegiak behar zirela bazekiten, baina ez horretarako zientzia bat zegoenik. Orain irizpide zientifikoekin lan egiten dugu. Europako Terminologia Batzordearen kide gara.

AGIRRE: Gure antzeko lana egiten duten nazioarteko erakundeekin homologatuta gaude, antzeko metodoak erabiltzen ditugu. Gauza batzuetan aurreratuago gaude.

Hiztegiak izan dira UZEIren ibilbidean haren ekarpen handienak?

AGIRRE: Hasieran, zalantzarik ez. Baina geroztik, ez.

URKIA: Garaiak aldatu egin dira. Orduko beharra hori zen. Halere, UZEIk 10 urteko bidea egin zuenean lexikografia adarra sortu zen, hau da, hiztegi orokorra jorratzen duena, Euskaltzaindiak eskatuta. Euskararen hiztegi hiritar eta moderno egitea zen haien asmoa, eta euskaraz XX.mendean argitaratu zenaren corpusa behar zuten. Bilde, lagin erakusgarria atera eta proposamenak egitea galdegin zigten. Hori da Orotariko Euskal Hiztegiarekin batera Euskaltzaindiak gaur egun argitaratzen duen Hiztegi Batuaren oinarria. Ondorioz, UZEIn bi alderdietan lan egiten dugu, batzuek terminologian eta besteak lexikoan.

Lehen, ez zeuden hitzak sortu egin behar ziren. Orain, sailkatu?

AGIRRE: Ez, ez. Lehen zegoen hutsune ikaragarri hori ez dago, baina alorrak berrikusi egin behar dira, zientzia bera aldatu egin da. Bate-tik, euskarak izandako aldaketek jarraiki eguneratu behar da, Euskaltermen bidetik, matematika eta psikologia une honetan adibidez. Bestetik, hiztegi berriak egite-

ko premia bada. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburordetzak eskatuta beste alorre bideraturiko hiztegi txikiagoak eginen ditugu, lanbide heziketari loturikoak esaterako, eta funtsean lanbide bideratuak.

URKIA: Hitz berriak modan jartzen dira eta termino berriak sortu, hori ere landu behar da. Agian, lehen gehiago sortu eginen zen, eta orain, bildu eginen da. Lexikografoan lana idatziaren azterketan eta hiztunen erabileran oinarritzen da.

Termino berrien jarraipena egiten duzue gizartearen. Nolakoak dira emaitzak?

URKIA: Euskaltzaindiaren lexiko orokorraren barruan espezializazioa zuten hitzak hautatu genituen jarraipena egiteko. Administrazioan, hezkuntzan, enpresan eta hedabideetan egiaztatu genuen Euskaltzaindiak arautu duena nola betetzen den. Harrigarria da emaitza, guztietatik %94,4k betetzen baitzituzten arau horiek.

Euskaltzaindiak terminologia ere lantzen al du?

URKIA: Ez, oro har. Euskaltzaindiak lexiko orokorrean ematen du onespina. Terminologiarako bada Eusko Jaurlaritzak Euskararen Ahol-

ku Batzordearen barruan sortutako terminologia batzordea. Orain hasiko da martxan, eta ondorioz, ez dago artean erabateko onespina duen termino berririk. Legealdi bakoitzean sortzen da dekretuz Euskararen Aholku Batzordea eta horren bidetik termino batzordea.

AGIRRE: Hiztegiak proposamen mailan egiten ditugu orain, termino berri bat sortzen denean norbait egon beharko luke bedeinkazioa emateko. Euskaltzaindiak *Ingurumen* hitza hobetsi zuenean bezala, termino berria izatean terminologia batzordearen egitekoa da hori egokia den epaitzea. Esate baterako, Euskaltzaindiak *Perlesia* nola esan behar den arautu du, baina ez zein kontzeptu izendatzen duen, terminologiaren ardura da hori.

Zein eremutan dago euskararen hutsune handiena? Informatika da horietako bat?

URKIA: Nik uste dut informatikan gauza asko eginen ari direla euskaraz. Xuxen ortografia zuzentzailea ez ezik sinonimoen hiztegia eginen ere hartu du parte UZEIk. Word programan idazten ari zarela, euskalki bateko hitza den edota zein erregistro mailetakoa den adierazten du. Kontua da ez zaiola zabal-kunde handirik ematen lan horri.

Euskaraz bide luzea falta al da egiteko?

AGIRRE: Euskaraz maila guztietan aritzea bada gure helburua pentsa zenbat alor dauden landu gabe. Oso urruti dago helburua. Bide horretan arazoak daude terminologian eta baita lan ezarpenean ere.

Euskaraz egun hizkuntza modernoa al da?

AGIRRE: Bai, gaur egun, bai.

URKIA: Oinarritzko beharrianak eta gehiago beteta daude. Euskaraz normal ikas daiteke, eta, nire ustez, gaur egun ez dago inolako arazorik euskaraz bizi ahal izateko. Bestelako gaia da gizarte nola dagoen, baina ez dut uste euskararen arazoa denik, baizik eta hizkuntzari ematen diogun tratua edo antolaketa arazoa. Egia da dena oso azkar aldatzen ari dela eta bizimodu teknologia berrien inguruan garatzen ari dela. Tren hori hartu behar dugu; hor sartu ezean, orduan bai geratuko delako euskara baztertuta.

AGIRRE: Baina, bestela esanda, gaztelaniaren aldean ez dugu inolako lotsarik izan behar. Teknologia berrien munduan sartzea agian guk baino errazago egingo du, lanak izango ditu, ordea, berak ere. Euskarak presentzia gutxi duen hainbat eremu daude, baina ez euskararen ezintasunagatik.

Kimika edo aeronautika erakusteko balio ez zuela esaten zuten batzuek. Dagoeneko frogatu al du euskarak oker zeudela?

AGIRRE: Ikastolan eta goi mailan, fakultatean, badira euskaraz kimika primeran erakusten duten irakasleak, ez da euskararen ausia.

URKIA: Ziur naiz aeronautikan eguneroko sortzen direla hitz berriak eta gureak bezalako arazoak dituztela espainiarrek eta frantsesez. Irten-bidea topatu behar zaio bakoitzari.

AGIRRE: Kontua da aeronautikan gaztelaniaz egin nahi dutenak hiztun gehiago direla.

«Euskalterm datu basea banakako hiztegiak biltzeko eta hiztegi guztiak eskura errazago izateko sortu zen»

JABIER AGIRRE
UZEI-KO TERMINOLOGOA ETA MEDIKUA

«Informatikan gauza asko eginen dira euskaraz, baina ez zaio zabalkunde handirik ematen ahalegin horri»

MIRIAM URKIA
UZEI-KO LEXIKOGRAFOA ETA HIZKUNTZALARIA